

## 2. Bilbo hiriaren aurrekariak

**D**iego Lopez de Harok 1300. urtean fundatu zuen Bilbo, eta egia esan, oso gauza gutxi ezagutzen dira aurreko historiaz. Ugariak izan dira Bizkaiko Jaunak hiri-gutuna eman zion herri txiki hari buruzko espekulazioak, batzuk oinarridunak eta beste batzuk funtsik gabeko burutazio hutsak. Dokumentu eta hondakin arkeologikoen arabera, badirudi Historiaurrean, Antzin Aroan eta Goi Erdi Aroan Bilbo inguruan herri txiki bat zegoela. Hiri-gutuna hartu ondorengo urteetan ere jatorrizko nukleoa Bizkaiko jaurerriko beste hainbat eta hainbaten antzeko landa-herrixka txiki bat besterik ez omen zen.

### 2.1. Bilboko barrutia Historiaurrean eta Antzin Aroan

Behe Paleolitotik Protohistoriako trantsiziora bitarteko Bilbo inguruko hondakin materialak ez dira batere garrantzitsuak. Oro har, Bizkaian aurkitutako Historiaurreko hondakinak ugariagoak dira mendebaldetik ekialdera joan ahala, eta oso ugariak Gernikako itsasadarraren inguruan<sup>1</sup>.

Bizkaian ez da aurkitu Behe Paleolitoko aztarnarik, baina bai Erdi eta Goi Paleolitokoak. Bilbotik hurbilen Kurtziako aztarnategia (Plentziatik gertu. Erdi Paleolitokoa da eta aire zabalean dago) eta Enkarterrietako Areatzakoa daude (Goi Paleolitokoa kobazuloan). Bilbon ez da okupazio-aztarnarik aurkitu, baina inguruko kobazuloek pentsarazten dute bazitekeela han jendea bizi izatea. Eneolito-Brontze Aroan (2800-1000 K.a.) azaldu ziren herrixken lehen hondakinak inguruko mendietan. Artxandako geltokian silex harriaz eginiko tresnak aurkitu dira, seguruenik behin-behineko

herrixketan bizi izandako jende-multzoenak. Hildakoak ehorzteko monumentuak ere aurkitu dira mendi horretan: trikuharrak eta tumuluak. Baina horiek aldaketa handiak jasan dituzte bideak eraiki direlako eta, barruan altxor handiak zeudelakoan, jendeak apurtu egin dituelako lapurreta egiteko asmoz<sup>2</sup>.

Kristoren aurreko lehen milurtekoan itsasgizon feniziar eta grekoak iritsi ziren penintsularen kostalde mediterraniarrera, eta batzuek Gibraltarko itsasartearen igaro zuten. Baina Bizkaiko Golkoaren kostalde urrunak ekialdeko eragin horretatik at geratu ziren neurri handi batean, eta Mediterraneoan gertatzen ari zen akulturazio-prozesutik kanpo ere bai. Ekialdeko herriek espedizio gutxi egin zituzten penintsularen iparraldera, neurri batean Atlantikoko uretan nabigatzeko zeuden eragozpenengatik.

Erromatarren hedapenak sartu zituen penintsularen iparraldeko herriak Mediterraneoan eremuan. Beti esan ohi da Euskal Herria leku menderaezina izan zela erromatarrentzat. Armarrak batzuetan ere ondorengo leloa dago idatzita: *Vardulia nunquam superata*<sup>3</sup>. Gaur egungo ikerketetan, ordea, uste horiek baztertu eta erromatarrek Euskal Herriko antzinako herriengan izan zuten eragina gero eta gehiago hartzen dute kontuan. Oro har, erromatarrek Bizkaiko Golkoaren kostaldea iberiar penintsulako beste lurralde batzuk adina berenganatu ez bazuten ere, ukaezinak dira bertan aurkitutako hondakin ugariak utzi dizkiguten aztarnak.

Bilbo inguruan autrigoiak eta karistiarak, oinarri etniko bereko herriak, bizi ziren, eta hantxe finkatu ziren erromata-

rrak ere. Nerbioi ibaia zen bi herrien arteko muga. Oro har, karistiarrak Nerbioi eta Deba ibaien arteko lurretan bizi ziren, biztanle-dentsitate txikia zutela, eta autrigoiak, aldiz, mendebalderago, gaur egungo Kantabrian eta Burgosen ipar-ekialdean.



BIZKAIKO AURRE-ERROMATAR HERRIAK

*Pax Augustearekin* Atlantikoko merkataritza izugarri garatu zen, eta hainbat portu sortu ziren Bizkaiko Golkoaren kostaldean. Kostako kokapenak aukeratzeko, erromatarrek hainbat ezaugarri aztertzen zituzten, eta barrurantz nabigatzeko itsasadarra zuten badia edo senaien inguruko tokiak, babes eta ikuspen ona eskaintzen zituzten muinodun badiak eta meategietatik hurbil zeuden tokiak hobesten zituzten.

Kantabriar kostaldeko portu erromatarrek baldintza horiek betetzen zituzten; hor ditugu: *Flavium Brigantium* (Coruña), Gijon, *Portus Vereasueca* (San Vicente de la Barquera), *Portus Blendium* (Suances), *Portus Victoriae Iuliobrigensium* (Santander), *Flaviobriga* (Urdializ), Forua (Gernikako itsasadarra) eta *Oiasso* (Irun).


Bilbo inguruak eta itsasadarrek aldaketa sakona jasan dute, batik bat azken mendean etxebizitzak eta industri eta portuazpiegiturak ezarri direlako bertan. Egoera horretan zaila da aztarnategiak aurkitzea, eta beraz, aurkikuntza guztiak uste-

kabean egin dira, baina denak eremu koherente batean<sup>4</sup>.

Bilboko hirigunean, Erribera kaleko 9an, Trajano enperadorearen (K.o. 98-117) brontzezko pieza bat aurkitu zuten itsasadarreko terrazetako harearen eta harkoskorren artean. Eremu horretan bertan, argizulo- edo teontzi-itxurako zeramikazko ontziak agertu ziren. Hasiera batean pieza erromatartzat jo zituzten, baina gaur egun Behe Erdi Arokoak edo geroagokoak direla uste da.

Itsasadarreko dragatze-lanetan hainbat txanpon aurkitu izan dira Portugalete eta Areea parean, gehienak K.o. II. mendekoak. Honako hauek dira txanpon-sorta bat osatzen dutenak: Errepublikako as bat, Trajanoren (K.o. 98-117) bi as, Hadrianoren (K.o. 117-138) bi as, Antonino Pioaren (K.o. 136-161) as bat eta bere emazte Faustina enperatrizaren beste as bat. Gaur egun desagertuta dagoen beste sorta bat Hadrianoren as batek eta Faustinaeren beste bik osatzen zuten. Azkenik, Antonio Pioaren beste txanpon bat dago Portuko Lan Bartzordearen egoitzan, ustez itsasadarrean aurkitutakoa<sup>5</sup>.


Hondakinok Erribera kalean eta itsasadarrean aurkitu izana erromatarren ontziak itsasadarrean sartzearekin lotu behar da, baina zaila da ziurtasunez ondorio zehatzagorik ateratzea.



ERROMATARREN PORTU NAGUSIAK  
BIZKAIKO GOLKOAN

Litekeena da Bilboko itsasadarrean kai bat baino gehiago egotea, “Triano” (Somorrostro) izeneko lekuko burdina-ustiaketa zela eta. Eta “Triano” latinetiko jatorria duen toponimoa da. Aukera hori baieztatzen dute Trapagaranen Trianoko mea jasotzeko kai bat zegoela adierazten duten dokumentuek, ondoren ikusiko dugunez. Itsasadarraren inguruan erromatarren hondakinak aurkitu izanak eta Pliniok bere Historia Naturalean (XXXIV, 149) osotasunean burdinazkoa zen mendi handi bati buruz –Somorrostro izan liteke, baina baita Kantabriako Peña Cabarga ere– egindako aipamenak bat datoz Bilboko itsasadarra nabigaziorako erabili zutela aldarrikatzen duen ustearekin<sup>6</sup>.

Nolanahi ere, ikerketen gaur egungo egoeraren arabera, badirudi tamaina han-



#### BILBOKO ITSASADARREAN AURKITUTAKO ERROMATARREN AZTARNA ARKEOLOGIKOAK

diko asentamendurik ez zela egon itsasadarrean, eta gehiago aprobeztatu zituztela kostaldeko beste toki batzuk. Bilbotik hurbilen Urdializ eta Forua zeuden eta bi toki

horietan erromatarren presentziaren hondakin ugari aurkitu dituzte<sup>7</sup>. Erromatarrek Bilboko itsasadarrean (Somorrostro eta Plentziakoan bezala) gehiago hedatzea galarazi zuena ipar-mendebalderako orientazioa izango zen seguruenik, itsasontzien sarrera eta irteera oztopatzen zuten korronte eta olatu handiak sortarazten baitzuten<sup>8</sup>.

#### 2.2. Bilbo hiriaren aurrekari hurbilak

1300 aurretik, hau da, Bilbo fundatu aurretik, pixkanaka-pixkanaka lurraldeak mugatzen joan ziren Bizkaian. XI. mendean geroztik, nabarmena da Nerbioi eta Deba ibaien artean nortasun handiko bi entitate zeudela: Bizkaia (Bizkaia nuklearra) eta Durango<sup>9</sup>.

Lehenengoa “alfoz” edo landa-barrutietan zegoen banatuta. “San Millango Botoren” dokumentuaren arabera, banaketa hori XII. mendearen erdi aldera sortutakoa da seguruenik. Testigantza hura mende eta erdi aurreratu zitzaion hango eremuaren, Uribeko landa-barrutiaren, gainean egindako lehen dokumentu-aipamenari. Izan ere, Bilbok hiri-gutuna jaso zuenean banandu egin zen Uribeko landa-barrutitik. Landa-barrutiak geroagoko merindadeen parekoak omen ziren.


Baina landa-barrutiaren barruan beste zatiketa bat ere badago: lurraldea. Batzuetan Bizkaia osorako ere erabiltzen da lurralde kalifikazioa. Dokumentuetan azaltzen diren albisteen arabera, dekania,

*locuma*, hirigunea edo monasterioa bil dezake lurraldeak. Horrenbestez, nekazaritzan ziharduten eta espiritualtasunaren alorrean antolatuta zeuden entitate txikien kokagune izango zen lurraldea.

Bizkaia nuklearrean, monasterioa eta horren mendeko dekania ziren espazioa antolatzeko modurik hedatuenak. 1300 aurretik, esanahia aldatu zuen monasterio-

zuzen lehenengo bederatzi hiribilduak fundatu zituztenean.

1040an, Gartzia Nafarroako erregearen arres-eskrituran “Uhart” toponimoa ageri zaigu: horrela deitzen dio Bilboko itsasadarraren ezkeraldeko buruari. Gaur egun, Trapagaraneko Ugarte auzoan dago toki hori. Ugarte barrualdean dago, Galindo ibaiaren ibilbidearen inguruan izandako



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

#### BILBO SORTU AURRETIK ITSASADARRAREN INGURUAN ZEUDEN BIZTANLE-GUNEEI BURUZKO ERREFERENTZIAK DOKUMENTUETAN

ak: Jaungoikoaren edo bizkaitar batzuen eliza izateari utzi eta laster elizate izenaz ezagutuko zen esparru bihurtu zen.

Lurralde-esparruak mugatzeko prozesu horrekin batera, giza taldeak leku garaietatik haranetara jaisteko prozesuari ekin zitzaion arian-arian, eta espazioak beste itxura bat hartu zuen. Horrela, bate-tik, gizakiak taldeka biltzen hasi ziren (hiribilduak), eta bestetik, abeltzaintzak garrantzia galdu zuen labore-ustiaketan eta burdina-meategien aprobetxamendua-aren aurrean. Bizkaiko biztanleak leku garaietatik lautadara jaisteko prozesua 1300 aurretik iritsi zen gailurrera, hain

jalkin-ekarpenengatik. Toki laua da, eta bertan etxeak daude lantoki eta langile-etxebizitzetaz inguratuta, baina ez dago kaiaren arrastorik ere. Erdi Aroan, ordea, marearen eragina iristen zenez, nabigatu egin zitekeen eta kaia zegoen, Trianoko meategitik Galindo ibaian behera jaisten zen mea kargatzeko. Halaxe egingo zuten, seguruenik, erromatarren garaitik. Eredu horretakoak ditugu Lope Blascoz baracaldensis seniorra (1051) eta 1075era arte hainbat dekania eta parrokiaren buru izandako Somorrostroko San Jurgi monasterioa (Santurtzi)<sup>10</sup>. Beste dokumentu-aipamen batzuen arabera, era desberdineko biztanle-multzoak zeuden

Pobeña, Arrigorriaga, Cerrada de Ranes, San Martin Finagakoa (Abanto eta Zierbena), La Caseria (Trapagaran) eta Santa Maria Gangurengoan (Galdakao), X-XII. mendeetan<sup>11</sup>. 1300eko Bilboko hiri-gutunean Begoñako monasterioa aipatzen da, hiribilduaren sarreran, eta baita artean hiribildu bihurtu gabe zegoen Portugaleteko kaia ere. Deustuko ainguratokia ere aipatzen da, baina ezin da ziurtasun osoz esan biztanle multzo egonkorra zegoenik.

Aurkikuntza arkeologikoei dagokienez, garrantzitsuena Finagako nekropolia da. Eragin merovinjo nabarmena zuen eta Malmasingo gotorlekuan zegoen, Nerbioi eta Ibaizabal ibaien elkargunean, antzinako hondakinen gainean<sup>12</sup>.

Oro har, Bilboko itsasadarraren inguruan asentamendu txikiak baino ez zeuden 1300 aurretik. Ez zegoen eskualdea bere inguruan antolatzen zuen hirigunerik. Asentamendu txiki horietako bat hasierako Bilbo izan zitekeen.

Asko espekulatu da hiri-gutuna jaso aurreko herri hartaz, baina egia esan, ordu arteko datuak urriak dira oso. Azterlan batzuen arabera, baliteke Goi Erdi Aroko herri txiki bat izatea, XI. mende inguruan sortutakoa<sup>13</sup>. Herri txiki hark kaia izango zuen eta Kadagoa (Mena), Nerbioi (Aiara) eta Ibaizabal (Durango) ibaien ibilbideak elkartzen ziren gunean egongo zen, itsasadarreko ibitik igaro zitekeen tokian, hain zuzen.

Hiribildua fundatu aurretik beste herri bat zegoeneko hipotesia zentzuzkoa da, izan ere, Nerbioiko hiribilduaren hiri-gutunak leku hartan aurretik zeuden hiru elementu aipatzen baititu<sup>14</sup>:

- aurretik zeuden biztanleak («*a vos los pobladores del puerto de Bilvao et a los que fueren vuestros vecinos*»)

- eliza (hamarrenen banaketan «*Sanctiago de Bilvao*» eliza aipatzen da, eta hiribildu berriko biztanleei ematen zaie «*la yglesia que haiades de usar a vecindat*»)

- portua (hiribildua Bilboko portua deitzen zioten tokian fundatu zen).


Gainera, D. Diegok bere hiri-gutunean dioenez, “berriro” sortzen ditu biztanlegunea eta hiribildua, eta beraz, baliteke Plentzian 1299an egindako birfundazioaren antzekoa izatea.

Lehenengo hirigunearen morfologia uste eta hipotesietan oinarritzen da, baina oro har, badirudi ordenarik gabe kokatutako zurezko eraikinak zituela. Agian biztanle batzuk gaur egun Bilbo Zaharra izenez ezagutzen den tokian bizi ziren, itsasadarraren ezker aldean, Miribilla mendiko burdina-ustiaketarekin zerikusia zuten jardueretan lan eginez. Beste batzuk, aldiz, itsasadarraren eskuinaldeko etxeetan bizi ziren, gaur egungo Askaoren inguruan, arrantzan eta itsasoko jardueretan lan eginez. Iritzi hori du Labayruk<sup>15</sup>. Labayruk dioenez, Diego Lopez de Haro V.ak Bilbon egin zuen birpopulaketan lehendik bertan bizi zirenez baliatu zen, eta arrantzari, kabotaia txikiari, errementaritzari, errotilanari eta nekazaritzari lotutako zereginak zituzten ogibide.

Litekeena da bi biztanle-entitateen artean itsasadarra zeharkatzen zuen zubiren bat egotea, edo agian, bi ibaiertzen arteko joan-etorriak ibi natural batean zehar egiten zituzten itsasbeheretan. Litekeena da, halaber, babes-dorreren bat izatea talaia gisa ibaiertzean edo antzinako lerrokaduraren bat, baina iritzi horiek guztiak hipotesi hutsak ditugu. Egia esan, inork ez daki ziur Santiago eliza hasieran ere gaur egungo tokian zegoen edo lehenbizi itsasadarraren ezker aldean zegoen eta gero hiribildu berriaren barrualdera aldatu zuten. Lehen aukera egia bada, bi hiriguneen artean isolatuta egongo zen.

Jatorrizko hiribildua Bilbo Zaharrean zegoeneko hipotesia Garibayk adierazi zuen esanaz, Bilbo hiriaren izena: “*emanó á esta villa, digna de título de ciudad, de otra antiquísima población pequeña, que está allende del*

río, con una casa llamada también Bilbao, que, á diferencia de esta nueva, vino después aquella á cognominarse vieja, como hoy día la llaman, nombrándola Bilbao La Vieja”<sup>16</sup>. Labayruk antzeko iritzia du, baina hasierako etxegunea Abando aldean (itsasadarraren ezke-



BILBO HIRIBILDUA 1300 BAINO LEHEN


rraldean) zegoela uste du, eta Diego Lopezen zabalgunek ezkerraldea bertan behe-  
ra utzi zuela Begoñan ezartzeko, hau da, Bilbao Zaharraren aurrean. Alde berria eraiki zuten lekuan zenbait dorretxe, Santiago eliza eta nekazari eta arrantzaleen etxe batzuk besterik ez omen ziren 1300. urtera arte<sup>17</sup>. Aipatutako idazlearen iritziz, Bilbori gero hiribildu berria eraiki zuten tokiko leinurik garrantzitsuenetik datorkio izena.

Hasiera-hasieratik Billirita, Hermudaza, Lasao eta Ollargango meategiak, Artundua-ga, Bosondo, Ibaizabal eta Ibeniko<sup>18</sup> errotak

eta ontzigintza indartsua zituztenez, hiribildua sortu orduko garapen handia izango zuen leku hark agian. Hori egiaztatzea zaila da, ordea.

Bestalde, Jean Gaultier Dalché-ren arabera, hiri-gutuna jaso ondoren, lehenik zegoen monasterio baten inguruan garatu zen Bilbo: Begoñako monasterioaren inguruan, alegia. Etxe-multzo txiki batetik abiatuz, portua oinarri harturik garatu zen beste era bateko antolamendua sortu omen zuten gerora. Hipotesi hori bitxia delako aipatu dugu, baina ez du ematen egiaztatzeko moduko dokumentu edo arrasto arkeologikorik dagoenik<sup>19</sup>.

Laburbilduz, 1300. urtearen aurreko Bilboko eremuaz dugun irudi orokorra ordura arte bere egoera larria gainditzea lortu ez zuen herri-gune txiki batena da. Dena den, baliteke gure irudi hori faltsututa egotea dokumentazio faltagatik, susmagarria baita hain garrantzi gutxiko hiribilduak bere merkatarientzat pribilegio-egoera lortzea Sevillan –Fernando IV.a erregeak eman zion– 1301ean, hau da, hiri-gutuna lortu eta urtebete eskasera. Esanak esan, gaur egun ezagutzen ditugun xehetasunek zuhurtasunez jokatzera behartzen gaituzte iritzietan; hobe da eskura ditugun dokumentu urriek erakusten digutenera mugatzea, egiaztatzen zailak diren beste errealitate batzuez aritzea baino.



### Oharrak

1. Bizkaiko Historiaurreari buruzko datuak Fernández Eraso, J.: "Prehistoria". *Enciclopedia Histórico-Geográfica de Vizcaya*. Kriseilu. Donostia, 1987. 9-90 orr. eta Barandiarán Maestu, I.: "La Prehistoria". *Nosotros los vascos. Gran Atlas histórico de Euskal Herria*. Lur, Bilbo, 1995. 17-32 orr.
2. Ikus Bizkaia. *Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. III. liburukia. Deustuko Unibertsitatea-Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1991. 157-159 orr.
3. Ikus Larrañaga Elorza, K.: "El periodo colonial romano". *Nosotros los vascos...* Op. cit. 33-48 orr.
4. Ikus Esteban Delgado, M.: "El País Vasco Atlántico en época romana". *Mundaiz 6*, Donostia. 1990. 124-125 orr.
5. Bilboko eta itsasadarreko aurkikuntza erromatarrei buruz gehiago jakiteko, ikus Azcárate Garai-Olaun, A. eta Unzueta Portilla, M.: "La huella de Roma en Vizcaya". *Enciclopedia Histórico-Geográfica de Vizcaya*. Op. cit. 140 or. eta Fernández Ochoa, C. eta Morillo Cerdán, A.: *De Brigantium a Oiaso. Una aproximación al estudio de los enclaves marítimos cantábricos en época romana*. Foro, Madril, 1994. 130 or.
6. Ikus Esteban Delgado, M.: "El País Vasco Atlántico en época romana". Op. cit. 124-125 orr.
7. Ikus Iglesias, J.M. eta Ruiz, A.: *Flavióbriga. Castro Urdiales Romano. Arqueología de intervención (años 1991-1994)*. Urdializ, 1995 eta Azcárate Garai-Olaun, A. eta Unzueta Portilla, M.: "La huella romana en Vizcaya". *Enciclopedia Histórico-Geográfica de Vizcaya*. Op. cit. 118-120 orr.
8. Ikus Esteban Delgado, M.: "El País Vasco Atlántico en época romana". Op. cit. 128 or.

9. Ikus García de Cortázar, J.A.: "Vizcaya antes de 1300". *Enciclopedia Histórico-Geográfica de Vizcaya*. Op. cit. 151-162 orr.
10. García de Cortázar, J.A.: "Vizcaya antes de 1300". *Enciclopedia Histórico-Geográfica de Vizcaya*. Op. cit. 155 or.
11. Ikus Bizkaia. *Arqueología, Urbanismo...* Op. cit. III. liburukia. 27-29 orr.
12. Ikus García Camino, I.: "Bilbao: de la Prehistoria a la fundación de la villa". *Bidebarrieta. Anuario de humanidades y ciencias sociales de Bilbao*. I-1996. Bidebarrieta Kulturgunea. 67-97 orr.
13. Ikus García de Cortázar, J.A.: "Vizcaya antes de 1300". *Enciclopedia Histórico-Geográfica de Vizcaya*. Op. cit. 156 or.
14. Ikus Torrecilla Gorbea, M.J. eta Izarzugaza Lizarraga, I.: "Evolución urbana del primer Bilbao". *Bilbao, arte e historia*. I. liburukia. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1990. 42 or.
15. Labayru, E.: *Historia general del Señorío de Bizcaya*. II. liburukia. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1967-1968 (1895-1900ekoaren faksimileko kopia). 268 or.
16. Ikus Guiard, T.: *Historia de la Noble Villa de Bilbao*. I. liburukia. Op. cit. 4 or. oharra.
17. Ikus Labayru, E.: *Historia general del Señorío de Bizcaya*. II. liburukia. Op. cit. 268 or.
18. Ikus Guiard, T.: *Historia de la Noble Villa de Bilbao*. I. liburukia. Op. cit. 42 or.
19. Ikus Gautier Dalché, T.: *Historia urbana de León y Castilla en la Edad Media (IX-XIII mendeak)*. Siglo XXI, Madril, 1979. 94-95 orr.